



Familia estimagarria;

Udako oporraldia amaitzearekin batera, ikasturte berriaren atarian gaude. Dakizueenez, bizi dugun osasun-egoera berezi hori dela eta, aurtengo ikasturtea honi hainbat kezka eta zalantzarekin ekingo diogu, are gehiago, gure funtzionamendua arautuko duten argibideak, ebazpenak eta aginduak etengabe berritzen ari direnean.

Horrexegatik, uztaillean, prest genuen kontingentzia-plana, berrikusi, egokitu eta berrantolatu egin behar izan dugu.

Hala ere, familiei lasaitasun mezua helarazi nahi diegu.

Lehenik eta behin, ongi etorriak izan daitezela, familia batzuk lehen aldiz eta beste familia batzuk berriro

Dokumentu honen bidez, kontuan hartu behar dituzuen funtzionamendu-arau nagusiak jakinarazten dizkizuegu.

Salbuespenezko egoera baten aurrean gaude, ez dago zalantzarik, eta agian egun batetik bestera aldatuko dizkigute lehen aipatutako aholku eta aginduak, eta hemen irakurriko dituzuen arau eta elementu batzuk aldatu edo baliogabetu ahal izango dira.

Horregatik, Zuzendaritza Taldeak familiei eta ikasleei une honetan egiten diegun eskaera bakarra da zuen lankidetzeta eta pazientzia. Ezinbestekoa izango da hasi garen ikasturtean aurrera jarraitzeko. Badakigu guztiok, batzuei gehiago eta beste batzuei gutxiago kostatuko zaigula, baina guztiok asmatuko dugu eta nahi dugun helmugara iritsiko gara.

Espero dugu ulertuko duzuela, iazko esperientziak erakutsi baitzigun hori gainditzen dela.

Agurtzen naiz.

Andoni Albisu.

Zuen ezagunen artean ahal duzuen neurrian informazio hori jakinarazteko eskatzen dizuegu.

Eskerrik asko laguntzeagatik.